



[Eusk/Cast] Agur eta ohore, Santrich!

ASKAPENA :: 21/05/2021

Es con dolor y con rabia que hemos recibido la noticia del asesinato del militante revolucionario Jesús Santrich por parte de los aparatos del Estado colombiano.

[Euskara]

Min eta amorru handiz jaso dugu Jesús Santrich militante iraultzailearen hilketak kolonbiar Estatu aparatuen eskutik. Santrichek bere militantzia eremu askotan garatu zuen: gerrillan, kulturean (poesia eta bestelako espresio artistikoen bitartez), antropologiaren bidez kolonbiar kultura indigenen ezagutzan... Bere presentzia iraultzailea, esan bezala, kolonbiar herriaren borrokaren eremu askotan ikusi ahal izan genuen, eta horrek egiten zuen Santrich militante iraultzaile integrala. Ezinbesteko diren horietako bat. Jasotzen ari zen eraso eta gezurren aurrean, Santrichek berak bere burua horrela definitu zuen elkarrizketa batean: iraultzaile zintzoa. Eta horrela mantendu zen azken momentura arte, borrokan amore eman gabe eta bere printzipio eta ideietan tinko.

Santrichek, marxismo leninistotik, beti aldarrikatu zuen Latinoamerikaren askapena amerikar herrien askapenetik etorriko zela, hori zela modua AEBen inperialismoarekin amaitu eta mende luzez ezarri den zapalkuntzarekin amaitzeko. Horrek, ezinbestean eraman zuen Santrich militante internazionalista izatera eta goxotasunez munduko herrien borroka besarkatzera, tartean hainbeste maite zuen Euskal Herria. Zer esanik ez palestinar herriarekiko eta bere borrokarekiko sentitzen zuen gertutasuna, beti kufiya soinean, herri horrekiko maitasunaren seinale.

Baina ahaztu gabe beti ere lehen pausoa Kolonbian eman beharra zuela, hori zela bere betebeharra munduko herrien askapenean, gainontzeko herrietako gainontzeko militante iraultzaileek berdina egingo zutenaren konfiantzarekin; batera baina bakoitza bere lubakitik, gutako bakoitza zapaltzen gaituen sistema kapitalista hetropatriarkal eta inperialistaren atzaparretatik askatu arte.

Kolonbiako Estatuak Santrich erail du, militante iraultzaile bat hil du; kolonbiar herria kaleetan zutik oligarkiaren kontra borrokan ari denean. Izar berria piztu da zeruan, eta Kolonbian borrokaren suak pizturik dirau. Euskal Herriak lagun handi bat galdu du, baina bere irakaspenek gurekin daude eta horri eutsiko diogu bidean aurrera egiteko. Gure 20. urteurrenean bidalitako agurrean Santrichek berak esan zigun bezalaxe, *jo ta ke, irabazi arte!*

Garaipenera arte, *compañero!*

[Castellano]

Agur eta ohore, Santrich!

Es con dolor y con rabia que hemos recibido la noticia del asesinato del militante

revolucionario Jesús Santrich por parte de los aparatos del Estado colombiano. Santrich desarrolló su militancia en muchos ámbitos: en la guerrilla, en la cultura (a través de la poesía y otras expresiones artísticas), en el conocimiento de las culturas indígenas colombianas a través de la antropología... Como decimos, pudimos ver su espíritu revolucionario en muchos ámbitos de la lucha del pueblo colombiano, y eso hacía de Santrich un militante revolucionario integral, de esos que son imprescindibles. En una entrevista, frente a los ataques y calumnias, Santrich se definió como “revolucionario sincero”. Y así se mantuvo hasta el último momento, sin ceder en la lucha y firme en sus principios e ideas.

Santrich, siempre reivindicó que la liberación de América Latina vendría de la mano de la liberación de los pueblos de Nuestra América, y que sólo así, se pondría fin al imperialismo norteamericano y a la opresión establecida durante siglos. Inevitablemente, esto llevó a Santrich a ser un militante internacionalista y a abrazar con ternura las luchas de los pueblos del mundo, entre otros la de nuestra Euskal Herria que tanto quería. Ni qué decir de su admiración y cercanía hacia la lucha del pueblo palestino, siempre con su kufiya, señal del amor que sentía por esa causa.

Pero sin nunca olvidar que el primer paso había que darlo en Colombia, que esa era su tarea para con la liberación de los pueblos del mundo, con la firme confianza y convicción de que las militantes revolucionarias del resto de los pueblos harían lo mismo. Así, cada una desde nuestra trichera, pero juntas, hasta liberarnos de las garras del sistema capitalista-heteropatriarcal e imperialista que nos oprime a cada una de nosotras.

El Estado colombiano ha asesinado a Santrich, ha asesinado a un militante revolucionario; cuando el pueblo colombiano se levanta en lucha contra la oligarquía. Una nueva estrella se ha encendido en el firmamento, pero la llama de la lucha del pueblo colombiano sigue prendida.

Euskal Herria ha perdido a un gran amigo, pero nos acompañan sus enseñanzas y nos aferraremos a ella para seguir adelante. Como él mismo nos dijo en nuestro 20 aniversario, “*jo ta ke, irabazi arte!*”.

¡Hasta la victoria siempre, compañero!

Agur eta ohore, Santrich!

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-agur-eta-ohore>